



## EUSKARA-IKASTAROEN DEIALDI OSAGARRIA

### 2018/2019 IKASTURTEA

#### otsaila-ekaina

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten Justizia Administrazioiko langileentzat prestatu den euskalduntze- eta alfabetatze-programaren helburua euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatzea eta bultzatzea da. Programa horren barruan, **Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak** honako eskaintza egingo du 2018/2019 ikasturteko deialdi osagarrian.

Deialdi osagarri honek 2018/2019 ikasturteko bigarren lauhilekoa arautzen du eta **funtzionarioei zuzenduta dago, baldin eta izendapenaren aurreikusitako iraupena euskara ikastaroaren iraupen berekoa ala luzeagoa bada.**

Deialdi honetako euskara-ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioek honako **konpromisoak** hartu beharko dituzte:

- Ikastaroen asistentzia eta aprobetxamendua.
- Mailak gainditzeko ezarritako aldizkako ebaluazio-probak egitea.
- **Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko azterketak egitea, dagokien urratsa lortzen dutenean.**
- Euren organo judizialetan euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzea.
- Beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea egiaztatu ostean, hizkuntzagatik bereiztutako lanpostua eskuratzeko hurrengo lehiaketan parte hartzea eta lanpostu horietako bat aukeratzea. Aukeraketa hori egin ezean, euskara-ikastaroak egiteko eskaerei ezezkoa eman ahalko zaie.



## 1. NORENTZAT

Deialdi osagarri hau funtzionarioentzat da. Deialdi orokorreko antzeko eskaintza dago. Deialdi horren 1. atalean jasotako zehaztasun eta berezitasunak Deialdi honetan ere izango dira aplikagarriak eta deialdi honetarako dauden aurrekontu aurreikuspenen barruan jokatuko da.

Eskatzaileek hautatutako moduluetarako aukera baino ez dute izango. Eskatzaile batek 2 eta 5 orduko ikastaroak eskatu baditu, lehentasuna 5 ordukoak izango du eta hori ukatuz gero, 2 ordukoa egiteko aukera aztertuko da.

Eskaera berriak onartuko dira bakarrik honako kasuetan:

- Funtzionario karguaz deialdi orokorrerako eskaerak aurkezteko epea (2018ko maiatzaren 15etik 25era) amaituta zegoenean jabetu badira.
- Deialdi orokorrean (2018ko maiatzaren 15etik 25era) edo/eta urriaren hasieran medikuaren baja izan dutenean.
- Deialdi orokorrean baztertuak izan badira, lanorduetan joateko plantillaren %30etik gorako eskaera egon zelako euren organo judizialean. Une honetan organo judizial horren egoera aldatu baldin bada, bigarren lauhileko honetan eskatu ahalko dute ehuneko horretaraino.

Laurdeneko ala gutxiagoko lanaldi murrizketa duten pertsonak lan orduetan ikasi ahal izango dute euskara. Proporzio hori gainditzen dutenek lanorduetatik kanpo ikasi beharko dute.

## 2. IKASTAROEN ESKAINTZA

Deialdi osagarriko ikastaro-eskaintza mugatua da. Horrela bada, deialdi orokorra oinarri hartuta, honako aukera hauek daude:

- ❖ 2 orduko ikastaroa egiten hastea, 1. puntuan zehazten diren kasuetan.
- ❖ 5 orduko ikastaroa egiten hastea, 1. puntuan zehazten diren kasuetan.
- ❖ 2 orduko ikastarotik 5 ordukora aldatzea.
- ❖ 5 orduko ikastarotik 2 ordukora aldatzea.
- ❖ Autoikaskuntza ikastarora aldatzea.

### 2 ORDUKO IKASTAROA

-2 orduko ikastarora aldatzea, lanorduetan ala lanorduetatik kanpo.

- Ikasturtearen lehen lauhilekoan 5 orduz liberatuta egon diren funtzionarioentzat.

### 5 ORDUKO IKASTAROA

Liberaziorako **leku-eskaintza: 8**

Honako honek ezin izango du 5 orduko lauhileko liberazioa izan:

- **Kidegoari dagokion** (derrigortasun-data izan ala ez) **maila/hizkuntza-eskakizuna lortu** (egiaztatua ala ez) duen langilea.
- 2018-19 ikasturtearen **lehen lauhilekoan 5 orduko liberazioa** izan duten langileak.

-5 orduko ikastarora aldatzeko betekizunak:

- 2018/2019 ikasturteko lehenengo lauhilekoan euskara-ikastaroetan aritu izana eta **aprobetxamendu ona** eduki izana (deialdi orokorreko 4. ataleko irizpideen arabera).



- Azken 6 hilabeteetan **B1 maila gutxienez** gainditu izana (egiaztatua ala ez).
- Eskaera berriak onartuko dira bakarrik honako kasuetan:
- Aurreko ikasturtean, 2017-18, euskara-ikastaroetan aritu izana eta aprobetxamendu ona eduki izana (deialdi orokorreko 4. ataleko irizpideen arabera). Deialdi orokorrean izana eman ez bada ere, Deialdi honen 1. atalean jasotako egoeren bat gertatu delako.

## AUTOIKASKUNTZA

Ikastaroa mota hau eskatu ahal izango dute, beti ere beste ikastaro mota bat egiteko ezintasuna behar bezala egiaztatzen badute.

## 3. JARRAIBIDEAK

### 3.1. ESKABIDE ORRIA

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek “Euskara-ikastaroetarako eskabide-orria” (I eranskina) bete eta izapidetu behar dute bide hauetako batez baliatuz:

- Posta elektronikoa: [n-laskibar@euskadi.eus](mailto:n-laskibar@euskadi.eus)
  - Zuzenean edo fax bidez Justizia Administrazioako Zuzendaritzan:  
 Justizia Administrazioako Zuzendaritza Faxa **945 01 91 51**  
 Herri Administrazio eta Justizia Saila  
 Donostia-San Sebastian 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
  - Zuzenean edo fax bidez Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako EATn.
- Argibideetarako telefono zenbakia: 945 01 91 59**

### 3.2. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea **2018ko azaroaren 22tik 30era** izango da, egun horiek barne. Egun horretatik aurrera ez da beste eskabiderik edo aldaketarik onartuko.

### 3.3. BAIMEN KOPURUA

Deialdi Orokorrean adierazi zen moduan, gehienez aldi berean organo judizial bereko **plantillaren %30ak** parte hartu ahalko du lanorduetako ikastaroetan, hau da, ikastaroetan urrian hasi zirenez gain deialdi osagarri honen ondorioz hasiko direnak ere kontuan hartuta.

%30 hori neurtzeko, kokaleku desberdinetan dauden eta bereiztutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehuneko unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da. Era berean, ehuneko aparte zenbatuko da lanorduetako 2 orduko eta 5 orduko moduluetan. Horrez gain, kontuan izango da organo judizial berean kidego bereko zenbat funtzionariori edo laboralari ematen zaion baimena, organoaren funtzionamendu ona bermatzeko asmoz. Lanorduetako euskara-ikastaroren bat egiteko onartua den langileak dagokion ikasketaren baimena izango du.

### 3.4. MAILAKETA-PROBAK

Eskaerak aztertu ondoren, deialdi honen aurreko azken 6 hilabeteetan euskara-eskoletara joan ez diren guztiek euskarazko ezaguera-maila zehazteko mailaketa-proba egin beharko dute. Mailaketa-proba hauetara deitutako langileek ezinbestean egin beharko dute, euskara inoiz ikasi ez eta 1. mailan hasteko daudenek izan ezik.



### 3.5. TALDEEN ANTOLAKETA

HABE Justizia Administrazioiko langileak hartzen dituen taldeak antolatzen eta langile bakoitzak eskatutakoa betetzen ahaleginduko da honako kasuotan:

- Goizeko lanorduetako 2 orduko ikastaroak Bilbon, Donostian eta Gasteizen.
- Ikastaro trinkoak euskaltegian.

Taldea sortzen bada, ikastaroa lantokitik gertu dagoen euskaltegi batean izango da posible den neurrian. Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak eskola non izango duen jakinaraziko dio interesdunari. Behin taldea esleitu denean, **ez da aldaketarik onartuko**, behar bezala arrazoitzen ez bada.

Talderik sortzen ez bada, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak matrikula-orria emango dio interesdunari haren lantokitik hurbilen dagoen euskaltegian talde bat aurkitzeko.

Goizeko lanorduetako 2 orduko ikastaroa egingo duen langileak behar duen denbora izango du euskaltegitik lantokira itzultzeko (gehienez 20 minutu; 8:00-10:20 oro har).

### 3.6. MATRIKULA-ORRIA

Ikastaroak HABEk homologatutako edozein euskaltegi publiko zein pribatutan egin ahal izango dira. Era berean, langileak euskaltegiko egutegi eta ordutegira moldatu beharko dira.

Matrikulatu ahal izateko Zuzendaritza honetatik emandako argibide eta agirien zain egon beharko da.

Dena delakoarengatik eskatzaileak matrikula-orria erabiliko ez balu, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzara itzuli beharko du lehenbailehen.

### 3.7. EGUTEGIA

Ikasleak ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du eskolan. Didaktika eta antolakuntza arazoak direla medio, behar bezala arrazoitzen ez bada, **ez da onartuko 10 egun igarota hasterik eskolan 2 orduko ikastaroetan eta 5 ordukoetan 5 egun igarota**. Hortaz, epe horiek igarota, **bertan behera utziko dira eskolan hasi ez diren ikasleen eskaerak**.

Justizia Administrazioiko langileek honako egutegia izango dute bigarren lauhileko honetan.

2 ordu	2019ko otsailaren 7a - maiatzaren 31
5 ordu	2019ko otsailaren 11 - ekainaren 22a

5 orduko ikastaroetara doan ikasleak euskaltegiak erabakitako egutegia jarraitu beharko du zehatz-mehatz, nahiz eta berak lan egiten duen organoan jaieguna izan. **Euskaltegian eskolarik ez baldin badago, ikasleak bere lantokira joan beharko du, egun bakar baterako izan arren.**

Halaber, 2 orduko ikastaroa egiteko baimena duen ikasleak bere lantokira itzuli beharko du egun horretan, aldi berean, euskaltegiko eskola-orduak besteko edo horien iraupenaren zati bateko lizentzia edo baimen egoeran gertatuz gero. Behin lantokian izanda, lizentziak edo baimenak ez hartutako denbora bete beharko du, baita berari egokitutako gainerako ohiko lanaldia ere.



### 3.8. ERREKLAMAZIOAK

Deialdi honetan onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda argitaratzen denean, arrazoi bat edo beste dela baztertuak izan direnek **10 egun naturaleko epea** izango dute, argitaratze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio-idazki bat aurkezteko Justizia Administrazioako Zuzendaritzan.

### 4. HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK

174/2010 Dekretuari jarraituz, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak aldiro-aldiro deitzen dituen euskara-ikastaroetara nortzuk joango diren erabakitzeke, irizpide hauek erabiliko dira, ondorengo lehentasunaren arabera antolatuta:

- 1) Bereiztutako dotazioa duten langileak eta beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenak.
- 2) Lehentasunezko zat jotako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
- 3) Kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duten langileak. Euskara erabiltzeko programak dituzten organoetako langileak.
- 4) Euskara-maila bera duten eskatzaileen artean, destinoko zentroan antzinasun handiena duenari emango zaio lehentasuna.
- 5) Destinoko zentroan euskara-maila eta antzinasun berbera duten langileen artean, aurreko ekitaldietan eskainitako ikastaroetan aprobetxamendu handiena atera duenari emango zaio lehentasuna.
- 6) Aipatutako irizpideak nahiko ez badira, langile gazteenari emango zaio lehentasuna.

### 5. LANTOKI ALDAKETA

Bitarteko funtzionarioen izendapenaren etetea gertatzen bada, Justizia Administrazioako Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote. Lanean ez dauden bitartean, eragozpenik ez badago, baimendutako ikastaroa egiten jarraitu ahalko dute.

Era berean, bitarteko funtzionarioak Justizia Administrazioan berriro lanean hasten badira, Justizia Administrazioako Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote. Ikastaroa egiten jarraitzeko aukera egoera berria eta deialdiko irizpideak kontuan hartuta aztertuko da.

Langileak zerbitzu eginkizun bat onartzea erabakitzen badu Justizia Administrazioako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio. Ikastaroa egiten jarraitzeko aukera, aurreko kasuetan bezala, egoera berria eta deialdiko irizpideak kontuan hartuta aztertuko da.

Kontuan hartuta zailtasun nabarmenak daudela matrikula bat euskaltegi batetik beste batera lekualdatzeko, lanpostu berrian langileak izan lezakeen ikastarorako aukera ezingo du gauzatu harik eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak ikastaroa onartu arte.

**IKASTAROEN APROBETXAMENDUA, IKASTAROA BEHIN BETIKO UZTEA, ORDUEN KONPENTSAZIOA** eta **IKASTAROEN FINANTZAKETA** gaiei dagokienez, euskara-ikastaroetako 2018/2019 deialdi orokorrean esandakoari jarraituko zaio oso-osorik.